


ELGERA

KARAN SINGH
XAKE-JOKALARIA

**“GUZTIOK
GARA ONAK
ZERBAITETAN”**





4

Karan Singh

- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Gertaerak
- 8 Eathink proiektua
- 10 Erreportajea
- 12 Musika
- 14 Ikus-entzunezkoak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Jarduerak
- 17 Denbora-pasak
- 18 Proiektuak



Euskaraz blai!

11

aurkibidea

ELGERA 14. ZK APIRILA



Naia Aspizua 20

- 20 Kirola
- 22 Lanbide Heziketa
- 23 Bertsolaritza



7
Garoa Sarrionaindia-Ibarra



23

Goi-mailako Haur Hezikuntza

Gora eta gora Harrapazank

Harrapazank programaren 14. edizioa abian da, eta bertan 1.303 gaztek eman dute izena. Bilboko Udalak jakinarazi duenez, aurten alde handiz gainditu da iazko kopurua.

Parte-hartzea handitu egin da, Sortuzank ekimeneko izen-emate kopurua bikoiztu delako eta Distirazank egitasmoan 20 talde gehiagok parte hartuko dutelako.

Harrapazank programa, zortzi eta hamazortzi urte bitarteko gazte bilbotarrentzat da, eta euren gustuen araberako jarduerak eta esperientziak euskaraz eskaintzen ditu.

Euskaltzaleen Topaguneak, Udaleko Euskera eta Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, atontzen du urtero gazteentzako programa hau. Helburuak gazteen artean euskararen erabilera sustatzea eta motibatzea dira, modu erakargarrian eta berritzailean.

Harrapazanken barruan hiru programa daude: Distirazank, Sortuzank eta Bilrobot; lehenengoan,



100 taldek parte hartu dute aurten (iaz 79 izan ziren). Junior kategorian 53 taldek (176 gaztetxok) eta senior kategorian 47 taldek (91 gaztek).

Sortuzank eta Bilroboten, berriz, itxaropen edo aukera guztiak txiki geratu direla diote antolatzaileek, izan ere, 1.030 izan dira izena eman duten gazteak, eta plazak

banatzeko zozketa egin behar izan dute.

Erakusketa jaia

Bilrobot Sortuzank erakusketa maiatzaren 11n izango da Euskararen Etxean 18:00-19:00 bitartean. Aurkezle lanetan Ugaitz Alegria arituko da eta gonbidatu berezia senior galetan aipamen berezia lortzen duen taldea izango da.

Maiatzeko galak

Bilborock aretoan maiatzaren 5ean eta 6an Distirazank galak aurkeztuko ditu Miren Gaztañagak. Epaimahaikide izango dira Ugaitz Alegria, Xabi Hoo, Ylenia Baglietto eta Eneko Sagardoy. Gonbidatu bereziak eta sorpresak iragarri dituzte antolatzaileek. Besteak beste, Unai Goikolea arituko da DJ lanetan.



“Guztiok gara onak zerbaitetan”

Karan Singh, Ellacuria-Zurbaran ikastetxeko DBH2ko ikaslea, xake-jokalari amorratua da. Duen adinarekin hainbat erronka lortu ditu, eta ez xake munduan bakarrik.



Nondik datorkizu xakerako zaletasuna?

Xake-jokoan Lehen Hezkuntzan nengoela hasi nintzen, ikastetxeko jantokian geratu nahi nuelako; nire ama konbentzitzeko esan nion jantoki orduan egiten zuten xake tailerrean izena eman nahi nuela. Hasi nintzenean, gustua hartu nion eta xake talde batean sartu nintzen azkenean. Orain nire zaletasunik gustukoena da.

Noiz praktikatzen duzu? Eta norekin?

Egunero aritzen naiz, Interneten ez bada, taldekideekin eta entrenatzailearekin astean bitan bai, gutxienez. Conteneo-Rey Ardid deitzen da gure taldea.

Eta zer pasatzen zaizu burutik xakean ari zarenean?

Normalean gustatzen zaizkidan gauzetan pentsatzen dut; hobeto kontzentratzen naiz horrela.

Zer lortu duzu xake munduan?

Hainbat txapelketa irabazi ditut, eta 115 euro bildu ditut saritan. 2016an Bizkaiko bigarren geratu nintzen hasiberrien kategorian. Aurten, bigarren urtea da haur-kategorian, baina, hala ere, Federazioak kadete mailan jokatzen uzten dit. Horri esker, Bizkaiko hirugarren kadete geratu naiz, eta Euskadiko txapelketara Eibarrera joango naiz.

Baduzu etorkizunerako erronkarik edo lortu nahi duzun helbururik?

Oraindik ez daukat oso argi. Xake-jokalari ona izatea lortu nahi nuke, baina zaila da. Maila altua lortzea da dudan ametsa.

Xakeaz gain, badaukazu bestelako zaletasunik?

Bai, musika. Zazpi urterekin Ingalaterrara joan nintzen. Hor ikusi nuen lagun bat pianoa jotzen eta izugarri gustatu zitzaidan. Egun hartan biolina jo nahi nuela erabaki nuen, baina azkenean biola jotzen amaitu nuen.

Orain izugarri gustatzen zait!

Non ikasten duzu musika? Zenbat urte dararamazu?

Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioan ikasten dut eta orkestra sinfonikoan jotzen dut. Kontserbatorioa 10 kurtsotan banatzen da, oinarritzko graduan lau maila eta profesional graduan beste seiak. Ni orain profesionalko 2. mailan nago, eta sei urte daramatzat musika ikasten.

Jakin dugu olinpiada matematikoetan ere izena eman duzula. Zergatik?

Pentsatzen nuelako aukerak nituela postu on batean geratzeko, eta matematika asko gustatzen zaidanez, esperientzia ona izango zela uste nuen.

Irabazteko gai zarela uste duzu?

Ez dut uste ez dakidalako zer maila daukaten beste parte-hartzaileek, baina prestatuko naiz ahalik eta posturik onenean gertatzeko; baikorra izango naiz.

Norengandik datorkizu matematikarako zaletasuna?

Uste dut nire amarengandik jaso dudala, baina nik neuk ere erein dut; orain nagoen mailara heltzeak lan handia suposatzen du eta bai nik egin dudan ahalegina bai amaren laguntza ezinbesteko gako izan dira.

Eta, klaseko kontuetara etorrira, zeintzuk dira institutuko zure gairik gogokoena?

Historia, matematika, fisika eta kimika. Berreziki fisika eta kimika.

Gomendatuko zenieke gazteei zure pausok jarraitzea?

Bai, baina bakarrik benetan gustatzen bazaie egiten dutena eta, bereziki, ametsik badute. Zalantzarik gabe, beren trebetasunak gartzea gomendatuko nieke. Guztiok garelako onak zerbaitetan.

Zein liburu gomendatuko zenioke lagun bati



MARIA ARRANZ

Arotzaren eskuak izeneko liburuan protagonistak urteetan atzera begiratu beharko du bere aitona (duela gutxi hildakoa) hiltzaile bat ez dela frogatu ahal izateko. Hilketa eta misterio liburu interesgarria da hau, eta bere irakurtzeko erraztasunak eta historia korapilatsuak amaiera arte mantenduko zaitu liburutik bista altxatu gabe.

JULEN IGLESIAS



33 ezkil liburuan Nelsonek eskeleto bat aurkitu du lurperatuta bere familiaren baserrian. Aztertu du eta hurrengo egunean desagertu da. Gainera bere aitak bere buruaz beste egin duela dirudi. Sartu misterio eta tentsioko eleberri honetan eta estalgabetu herriak gordetzen dituen sekretuak eta iragana. Historia paralelo korapilatsua eta intrigantea daukan liburua da eta behin irakurtzen hasita, amaiera jakin arte mantenduko zara liburuari begira.



IDAUZE DEL VALLE

Nahiago nuke mutila banintz liburua Julia izeneko neska bati buruz da. Neska kokoteraino dago hilekoaz eta mutila izatea gustatuko litzaioke. Egun baten hilekoaren maitagarria etorri eta desira hori betetzen dio, esanez, hilabete batean mutil ala neska izateko ahalmena duela, baina hilabetea bukatzean zer sexu hautatuko duen esan behar diola. Hautatutako sexuarekin geratuko da bere bitziza osoan. Hilabete horretan Juliari gauza asko gertatzen zaizkio eta asko ikasten du bi sexuei buruz, baina zein sexurekin geratuko da?

IDOIA DIEZ



Irakurri dudaz azken liburua *Kandindinskyren tradizioa* izan da, Ramon Saizarbitoriak idatzia. Oso liburu erakargarria iruditzen zait gazteontzat, pertsonaia nagusia gure adinekoa baita. Gainera, irakurtzeko arina eta intriga handikoa da.



MIKEL EZKURRA

Irakurri dudaz azken liburuetatik gustukoena, zalantzarik gabe, Joseba Sarrionaindiaren *Kolosala izango da* izan da. Sarrik gure herriaren pasarte ilun eta tristenetako bat kontaktzen digu ume baten ikuspuntu inozo eta garbitik. Oso gomendagarria iruditzen zait euskal gazteentzat.

ARNAU GOMEZ



Nik gazteei gomendatzen didan liburua, Iñaki Irasizabalen Igelak *benetan hiltzen dira* da. Iaz irakurri nuen. Hilketa bat gertatutako herrira bizitzera doa gure protagonista eta bere istorioan barrena murgiltzen zaituen liburua iruditu zitzaidan.

Bitxikeria

Larunbata zen eta lagunekin geratuta nengo izozki bat jatera joateko, hain zuzen, Maider eta Oihanarekin. Bagindoazen hirurok Llao-Llaorako bidean eta, bat-batean, emakume bat guregana hurbildu eta ea Bilbokoa nintzen galdetu zidan. Nik baietz, eta hasi zen hizketan bere bisita-txartela ez zuela aurkitzen eta, ez nekienez nor zen emakume hori, beldurtzen hasi nintzen, ez nuelako ezer ulertzen.

Nor ote zen emakume hura? Zergaitik jakin nahi zuen nongoa nintzen? Ze demontre zen txartel hori? Jarraitzen zuenez demontreko txartela aurkitu ezinik, ea telefonoa nuen galdetu zidan, eta bere telefono zenbakia eman zidan, aginduz gurasoei esateko telefono horretara deitzeko, beraiei zuzenean azalduko

ziela zer nahi zuen, eta guzti hori ni zur eta lur, oraindik enteratu gabe zeri buruz hitz egiten ari zen. Azkenean, Modelo agentzia batekoa zela komentatu zidan eta, agurtu ondoren, gure bidea jarraitu gendun Llao-Llaora.

Hurrengo egunean, nire gurasoek telefono horretara deitu zuten azalpen bila eta, hara non iragarki bat egitea proposatu zidaten, eta hor ikusi nauzuen Eroskiko Gabonetako iragarkietan, batean janaria prestatzen, bestean opariak zabaltzen... Eta guzti hori nik neuk ere sinestu gabe. Ez nuen inoiz ere ez pentsatuko aktore lanetan aritzea, baina aitortu behar dut esperientzia polita izan dela. Eta gerora begira??? Batek daki etorkizunean zer!



Eathink proiektua Ibarrekolandan

Iaztik hona gure ikastetxea Eathink proiektuan parte hartzen ari da. Eathink proiektua Europako hamabi herrialde eta Afrikako bi herrialdeetako ikastetxeetan lantzen ari da. Honen bidez, gure janaria nola ekoizten den eta zerez osatuta dagoen aztertu eta gizarte mailan dituen eraginak ere ezagutu ditugu

Aurten 'Bertokoa jan, mundua buruan' izeneko tailerrak egin ditugu DBH eta Batxilergoan, *Komunikazioa eta ziberaktibismoa* izenburu pean.

Gure elikatze ohiturak (gosaria, hamaiketakoa...) aztertu ditugu osagaiak eta jatorriak

ezagutzeko, eta mundu mailan gure kontsumoaren eraginaz ohartzeko eta kontzientzia hartzeko. Adibidez, palma olioaren gero eta gehiago kontsumitzen dugun eta honen eraginak oso kaltegarriak dira Asiako basoetan eta orangutanengan, baita ere gure herrian hainbat elikagai zein erraz botatzen ditugun



Ibarrekolanda BHI
Kultura Zientifikoko ikasleak
Gurutze Blanco, Maialen De la Peña,
Raul Hierro eta Mikel Hidalgo

zaborrera, hainbat pertsonak bizitzeko behar dutena deseuztatuz.

Bestalde, gure janarien truke ordaintzen duguna ez dator bat produktuen kalitatearekin. Diru asko publizitatean eta bitartekarien eskuetan geratzen da, ekoizleen kalterako: nekazariak, abeltzainak, arrantzaleak... Kontsumo modu horiek askotan aurreko ofizioen desagerpena suposatzen dute.


Sasoiko produktuak kontsumitzearen garrantzia ere landu dugu, eta urtaro bakoitzeko produktuak erabiliz menu desberdinak osatu ditugu.

Tailerretan landutakoa praktikan jartzeko, proposamenak egin ditugu klasean. Kultura Zientifiko arloan ikerketa txiki bat egiten ari gara. Oro har, ikastetxeko ikasleen elikatze ohiturak eta obesitatea lotzea izan da helburua. Horretarako inkestak egin ditugu talde eta maila desberdinetan eta guzti hau aztertu eta gero, emaitzak eta hobetzeko proposamenak zabalduko ditugu ikastetxean.

Aldi berean, gure ikastetxean ortua dugu eta bertan lanean ari gara. Hainbat ekintza egin ditugu: erein, garbitu, ongarritu, landatu... laz negutegi-hazitegiak egin genituen Teknologia giako gelan eta Jakoba Errekondo adituaren bisita izan genuen. Berak emandako aholkuak jarraituz, Kultura Zientifiko eta Laborategi teknikak arloetan intsektizida naturalak

(asun purina, tabakoarena...) eta lurzoruen analisiak ari gara lantzen azken bolada honetan.

Proiektu hau oso interesgarria da guretzat. Alde batetik, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen digulako; bestetik, arlo desberdinak elkartzen eta lantzen dituelako; eta azkenik, testu liburuetan eta ohiko programazioetan agertzen ez diren gaiak ere lantzen direlako. Gainera, proiektu hauen lanaketaren bidez gure garuna eta bizitzarekiko ikuspuntua zabaltzen ari dira. Beraz, aurreko guztiek kontzientzia hartzeko eta pertsonak bezala hobetzeko laguntzen digute.



Euskaraz blai!

Kultur Ekitaldia San Inazio BHI institutuan martxoaren amaieran edo apirilaren hasieran ospatzen dugun jaialdi bat da.



Jaialdia euskara eta Euskal Herriko kultura sustatzeko modu bat da. 2000. urtean festa hau jada egiten zen. Lehen Euskal Astea deitzen zen eta hiru egunetan zehar ospatzen zen, geroago bi egunera laburtu zen.

Jaialdia hasi aurretik, Kultur Ekitaldirako gauzak prestatzeko hainbat denbora uzten digute eta kirolekin hasten gara. Ekitaldiaren bi egun hauetan jolasen eta kirolen finalak, esketxak, *play-back*-ak, euskal dantzak, bertsoak eta irrintziak egiten dira.

Klase bakoitzak egindako ekintza bakoitzari irakasleek puntuazio bana jartzen diote. Lehenengoari 50 puntu ematen diote, bigarrenari 40 puntu, hirugarrenari 30 puntu eta gainerakoei 10 puntu, parte hartzeagatik.

Hiru egun

Lehenengo egunean, jaialdiari hasiera emateko, ikasleak mozorrotuta joan behar dira, Euskal Herriarekin zerikusia duen jantzi ba-

tekin, ohikoenak euskal mitologiako pertsonaiak eta herri kirolak dira. Mozorrorik originalenak irabazten du. Ondoren, aureskua dator. Lehen irakasle batek aureskua egiten zuen jaialdiari ongietorria emateko, baina irakasle hori aurreko urtean erretiratu zenez, ikasle batek egin zuen. Ongi etorriaren ondoren euskal dantzak datoz. Ekintza honetarako bakoitza bere klasearekin batzen da, eta kultur ekitaldia baino lehen entseatutako hainbat dantza egiten dira; *Zazpi jauziak*, *Pitx* edota *Txulalai*, besteak beste. Ondoren, bertso agurrak, esketxak, bizikleta proba, sokatira finala, zelai errea eta zapia egiten dira. Amaitzeko, irrintzi lehiaketa dago eta egunean zehar klase bakoitzak lortutako puntuazioak ematen dituzte.

Kultur Ekitaldiaren azken egunean zein klasek irabazi duen esaten da. Irabazlea Kultur Ekitaldiaren bi egunetan puntu gehien lortu dituen izango da. Saria klaseko partaideek afari bat elkarrekin egitea da.



Musikariak San Adrianen

San Adrian BHIko hiru ikaslek, Itxarok, Mainerrek eta Alesek, musikarekin duten harremana partekatu nahi izan dute, gainera, ikasketak eta zaletasun hau nola uztartu daitezkeen argi utzi digute.

Itxaro Liendro

Txiki-txikitatik izan dut musikarekiko zaletasun handia. Gogoratzen dudanetik banekien etorkizunean musikarekin lotutako zerbaitetan lan egin nahi nuela. Orain dela sei urte hasi nituen musika ikasketak, trikitixa eta Musika hezkuntza, hain zuzen ere. Nik dudan zaletasuna gurasoengandik jaso dut. Aita argentinarra da eta beti bere herriko abesti famatuak abesten zizkidan. Amarekin, aldiz, euskal musika entzuten nuen eta, horrela, nigan bi kulturek eragina izan dute.

Musika niretzat dena da leku eta momentu guztietan baitago, triste bazaude musikak animatzen zaitu eta pozik bazaude ere.

Orain arte bi taldetan egon naiz eta bietan abeslaria izan naiz. Lehenengo taldea nirekin Musika hezkuntza egiten zuen lagun batekin osatu nuen eta gero beste bi mutil etorri ziren, taldea Ez Gaude Salgai deitzen zen. Haiekin gure lehenengo kontzertua egin genuen, jendez beteta egon zen, eta oso pozik jaitsi ginen eszenatokitik. Hori pasa den urteko ekainean gertatu zen, kontzertua egin ostean, handik hiru hilabetera, taldeari amaiera ematea erabaki genuen.

Talde berriarekin, Etabar talderekin, hainbat proiektu dauzkagu. Garrantzitsuena guretzat momentuz, kontzertuak egitea da, seguruenik laster zerbait konposatzen hasiko gara.

Egia da, kasting askotara joan naizela, *La Voz*, *Got Talent*, *Bagoaz*... eta denetan ezetz

esan didate, baina nire ametsa denez, ez dut hain erraz amore emango oso maite dudan gauza baita. Behin eta berriz saiatuko naiz eta egunen batean aukeratua izango naiz.

Bukatzeko esan, etorkizunean abeslaria izatea gustatuko litzaidakeela. Badakit zaila dela, baina azken hilabeteetan nik gustuko ditudan hiru euskal abeslarirekin abestu dut (En Tol Sarmiento, Zuriñe Hidalgo –Hesian– eta Xabi Solanorekin –Esne Beltza–), eta horrek itxaropen handia eman dit.

Maidar Garcia

Niri musikak askatasuna ematen dit, baita alaitasuna ere. Asko ikasi behar da, bai, baina ematen dizunak ez dauka parekorik. Niretzat orain musika entzutea edo lehen entzutea ez da berdin; orain beste modu batera entzuten dut, adibidez: ulertzen dut entzuten dudana, disfrutatzen dut. Banda batean jotzen dut, eta beste batzuekin musika egitea asko gustatzen zait.

Musika ikasketak akademia batean sei urterekin hasi nituen, amak behartu ninduen. Garai hartan oso erlaxatuta nengoen, astean ordu eta erdi bakarrik egiten bainuen. Zortzi urte bete nituenean, Kontserbatorioan sartu nintzen. Han, astean, hiru ordu ematen nituen.

Hirugarren mailan banda batean izena eman nuen, eta banda horretan oinarritzko laugarren mailara arte egon nintzen. Laugarren mailan azterketa bat egin nuen profesionale-



ra pasatzeko, eta hamarretik bigarrena geratu nintzen.

Profesionaleko lehenengo mailan Euskadiko Ikasleen Orkestran sartu nintzen, eta beste banda batean hasi nintzen. Orain profesionaleko bigarren mailan nago, sei eskola ordu ditut astean eta bandan segitzen dut.

Etorkizunera begira, agian, musikaria izango naiz, oraindik ez dakit oso ondo. Baina, hori bai, profesionaleko seigarren mailara arte egingo dut, bai ala bai.

Alesander Valero

Perkusionista naiz, hau da, baketekin edo eskuekin kolpeak emanez, abesti baten bai erritmoa, bai melodia egin dezaket. Guztio bezala, Lehen Hezkuntza musika ikasi nuen, baina nik gehiago egin nahi nuen. Hori zela eta, instrumentu bat jotzen ikastea erabaki nuen eta Hizkuntza musikala hasi nuen.

Familia musikaria izanda, zaila zen neu ere ez izatea!

Txikia nintzenetik izan dut gauzak kolpatzeko zaletasuna, eta konturatu nintzenean hori musikarekin lotu ahal nuela, berehala jakin nuen niretzat perfektua izango zela perkusioa. Umea zarenean musikak joko dirudi: doinuak elkarrekin jarriz armonia sortzen da, edo zuk erabakitako abiaduran erritmo bat sortuz. Baina nagusitzen zaren bitartean aurkitzen dituzu, pixkanaka-pixkanaka, abestietan ezkutatuta dauden esanahiak, eta ez dute derrigorrez letrarik eduki behar.

Urteak egon naiz ikasten, oraindik, nahiz eta profesionalak bezain ona ez izan, horretan jarraitzen dut, gainera primeran pasatzen dut musika eskolako bandarekin jotzen. Haiekin istorio dibertigarri asko gertatu zaizkit. Horregatik esan dezaket, dudarik gabe, etorkizunean musika jotzen jarraituko dudala.

Captain fantastic

Otsailaren 23an, IES Rekaldeberriko BHIko 4Ako ikasleak zinemara joan ginen. Irudi Biziak programaren barruan *Captain fantastic* pelikula ikusi genuen. 2016ko pelikula bat da, AEBkoa eta 118 minutuko iraupena du.

Aita bat eta bere sei seme-alabak gizartetik kanpo bizi dira, oihanean. Zoriontsuak dira, baina zerbait gertatuko da eta zibilizaziora itzuli behar izango dute. Aitak seme-alabei denetarik irakatsi die txikitatik: ehizatzen, korrika egiten, zuhaitzetara igotzen, animaliak larrutzen eta lurra lantzen; hizkuntzak, politika, filosofiaren historia eta musika klasikoa ere ezagutzen dituzte, eta literaturaz eta arteaz gozatzen ere badakite. Baina, ez dute ikasi gizartean bizitzen. Mundu errealean bizi den jendearekin harremanetan jarri beharko dira, eta, nahiz eta familiakoak izan, aitona-amonak eta izeba-osabak adibidez, ez zaie erraza egingo.

Pelikula interesgarria da. EZ! Hitz hori debekatuta dago. Zergatik? Pelikula ikusi beharko duzu, hori zergatik esaten dugun ulertzeko. Lehen eszena beldurgarria da: odol asko dago. Gero barre eta negar egingo duzu. Baina, edonola ere, hitz ematen dizugu pe-



likula osoan zehar oso adi egongo zarela pantailaren aurrean.

Familia eta heziketa eredu desberdinak agertzen dira eta liskarrak konpontzeko hainbat bide. Pentsatzeko eta eztabaidatzeko pelikula bat da.

Ikusgarria eta entzungarria da Guns and Roses taldearen *Sweet child of mine* abestiaren bertsio berezia pelikularen amaieran. Sari asko irabazi ditu filmak, zuzendari onerari Cannesen, besteak beste. Aktoreek ere oso ondo egiten dute lan. Baina ikusteko esaten badizugu, ez da horregatik bakarrik. Guri asko gustatu zaigu. Egin kasu: ikus ezazu, merezi du eta!

Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



Euskalenglishñol

Marrubizko, limoizko eta MUTILEZKO... kontuz aldageletan!



Begia eta belarria ez dira horren hurbil inoiz egon. Mango #LostinTraslation

3.000€ euskarazko azterketa egiteagatik. Errealitate hau existitzen da. Begiak talo!



Edariek in arazoak dituzu? Agian lagundu ditzakegu

Edateak sortzen dituen arazoak gramatikalak ere izan daitezke

Ederto ibili ginen Sastarrain baserri eskolan

**Martxoaren 1ean Sastarrain-
ra abiatu ginen ikastetxetik. 6.
mailakoek urtero egiten ditugu
halako irteerak.**

Salesianos Deusto - LHko 6.B

Normalean hiru egunetakoak izaten dira irteerak; hau da, gau bi. Aurten otsailaren 28an ateratzekoak ginen, baina ezin izan genuen elurra zela eta. Errepideak ere moztuta zeuden eta atzeratu behar izan genuen irteera. Eskerrak hurrengo egunean eguraldia zoragarria izan genuela!

Baserri Eskola Zestean dago, naturaz inguratuturiko bailara eder batean eta hara ezin da autobusez heldu; beraz, azken zatia oinez egin genuen. Furgoneta batek eraman zituen gure motxilak.

Heldu ginenean monitoreak gure zain zeuden; lehenik etxea erakutsi ziguten eta horren ostean, arauak eta egitaraua azaldu zizkiguten. Jantokirako ardurak antolatu zituzten eta taillerretarako hiru taldetan banatu gintuzten.

Ekain txiki kobazuloa bisitatu genuen; sartu baino lehen ondoko ibai ertzetan harri berezi batzuk hartu genituen bitxiak egiteko. Bos-

naka sartzen ginen kaskoa jarrita eta besteak bitartean bitxiak egiten zituzten. Sarreraraino soka baten bidez igo behar izan genuen eta kobazuloan arrastaka joan ginen. Estalaktikak, estalagmitak eta aitzinako marrazkiak ikusi genituen. Denok amaitu genuenean, harriekin sua piztera joan ginen. Oso interesgarria izan zen!

Ukuiluan eta oilategian zeuden animaliak ikusi genituen: untxiak, oiloak, zaldiak, txakurrak, katuak... Janaria eman genien eta untxiak ukitu genituen! Oso lasaiak ziren!

Zaldiekin egon ginen, orraztu genituen eta gero euren gainean eseri ginen bueltatxo bat emateko kanpoko itxiduratik. Primeran pasatu genuen!

Afaldu ondoren gaubela egin genuen etxeko gela handi batean. Hasieran diskoteka monitoreekin eta gero gure irakasleak etorri zirenean frogak eta jokoak ere egin genituen. Dibertigarria izan zen!

Oheratzeko orduan oso emozionaturik geunden eta batzuei asko kostatu zitzaigun loak hartzea. Bigarren solairuan hiru logela handi zeuden etxean: batean, neskek lo egin genuen bestean, mutilek eta hirugarrenean, irakasleek. Ederto ibili ginen!





W

Gurutzegrama

Eman euskarazko baliokideak

- 4. superstition
- 5. cautious
- 6. believe
- 7. reponsible (of an accident, for example)
- 9. incredulous
- 10. faith


- 1. believer
- 2. belief
- 3. reponsible (for a task)
- 4. believable
- 8. incredible



Animaliak

Badakizu animalia hauen izena euskaraz?

- | | |
|-------------|-----------|
| 2. bull | 1. bee |
| 5. cow | 3. hare |
| 6. rabbit | 4. goat |
| 8. swallow | 6. dove |
| 9. worm | 7. calf |
| 13. mouse | 10. eagle |
| 14. seagull | 11. dog |
| | 12. fly |



Empathy Site, hamaika istorio entzuteko

Kanpotik etorritako gazteei ikasketetan eta izan ahal dituzten arazo pertsonaletan laguntza eskaintzen die Empathy Site taldeak.

Empathy Site orain dela hiru urte sortu zen talde bat da. Diziplina anitzeko proiektuen bidez lan eginez, gure ikastetxeko gazte batzuk hamabost urterekin munduari beste ikuspuntu batetik begiratzen hasi ziren, euren egunerokoan gertatzen ari ziren egoerez jabetzen eta ikusten zituzten arazoentzako soluzioak bilatzen. Horrela sortu zen proiektu hau. Neska eta mutil hauen lana atzerritik

datozen haur eta nerabeen bizitza hobetzean datza. Nola? Euren istorioak entzunez.

Imajina dezakezu egun batetik bestera zure herria utzi egin behar duzula? Eta hortik beste herrialde batera joan behar duzula, ikastetxe berri batera, kide eta sarritan hizkuntza desberdina duen batera? Ba, gazte ekintzaile haiek hasieran pentsatu zuten konponbidea






plataforma digital bat sortzea izan zen, baina konturatu ziren ideia hankamotz geratzen zela, arazoa modu hotzean tratatzen baitzen. Orduan, bigarren aukera bat proposatu zuten, boluntarioritza, alegia, horrela, kanpotik datozen ume eta nerabeek benetako laguntza aurkitu ahal izango zuten. Gaur egun astero 20 boluntariok egiten dute lan Ikeak egokitutako La Salle Bilbao ikastetxeko lokal batean. Bertan, ikasgai kontuak landu ez ezik, eurek izan ahal dituzten arazo pertsonalak konpontzeko laguntza eskaini ere egiten zaie. Umeentzat leku eroso da, eta erabiltzaile baten hitzetan maitatuak sentitzen dira.

Boluntarioritza oso pauso handia izan da hasiera batean pentsatzen zutena errealitate bihurtzeko. Baina honetaz gainera, azkenean plataforma bera ere aurrera atera dute. Horrela, 'denboraren banketxea' sortu dute, hots, boluntario bakoitzak bere denbora es-

kaintzen du, adibidez, fisikan, euskarari, ingelesez, gaztelan edota beste edozein ikasgaiari laguntza emateko, eta badira bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten boluntarioak ere, sukaldaritzan... e.a.

Bi ekimen horiei 2017ko abenduaren 19an eman zien Juan Mari Aburto alkateak hasiera. Gainera, lokalaren inauguraziora beste pertsona garrantzitsu batzuk ere etorri ziren: Bilboko Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik zenbait pertsona, Ikearen ordezkariak, gure ikastetxeko zuzendaria, irakasleak... e.a. Egun berezia izan zen, proiektua oso garrantzitsua zen guztiontzako.

Denok batera lan eginez, hasiera batean erronka gisa ikusten genuena orain ez da desira hutsa, errealitatea baizik.



Naia Aspizua

“Espainiako txapelketa irabaztean oso emozionatuta nengoen”

Naiak Salestarrak Deusto ikastetxean ikasten du, 6. mailan dago eta 2017ko apirilaren 1ean Espainiako Karate-txapelketa irabazi zuen. Deustuko Kancho Oyama gimnasioan entrenatzen du.

Zein da praktikatzen duzun karate-estiloa?

Kyokushinkai da praktikatzen dudana.

Zenbat urterekin hasi zinen karatea praktikatzen?

Lauzpabost urterekin hasi nintzen; beraz, zazpi urte daramatzat.

Zergatik aukeratu zenuen karatea egitea?

Nik ez nuen aukeratu, nire aitak aukeratu zuen nik egitea.

Zenbat eta noiz entrenatzen duzu?

Astehenero eta asteazkenero ordu bete, eta ostiralero ordu biko saioak izaten ditut.

Zergatik gustatzen zaizu karatea?

Dibertigarria delako eta gainera, batzuetan indar-jokuak eta ariketak egiten ditugu!

Zein gerriko daukazu orain?

Orain berdea daukat, joan den abuztuan lortu nuen.



Zenbat entrenatzaile izan dituzu?

Bi: orainoa David Redondo da eta lehen, Eriz Augustorekin entrenatu nuen. Izan ditut beste ordezeko batzuk ere bai.

Pozik zaude zure taldekideekin? Lagunak egin dituzu?

Bai, oso pozik nago eta lagun asko egin ditut. Batzuetan elkarrekin ateratzen gara as-teburuetan.

Zer material behar da karatea praktikatzeko?

Entrenatzeko kimonoa, gerrikoa, quantilak (eskularruak) eta zango-babesak behar dira eta txapelketetan 17 urte baino beherakoek kaskoa eta petoa ere jartzen ditugu.

Zein ezaugarri izan behar dituzu kirol hau praktikatzeko?

Indarra, erresistentzia eta fisikoa izan behar dituzu batik bat.

Zenbat lehiaketa irabazi dituzu? Eta zein izan da inportanteena?

Bizkaian lau irabazi ditut eta Espainian, bat. Inportanteena azken hau izan da, 10-11 urteko eta 45 kilo baino gutxiagoko kategorian izan da irabazi onena.

Nola lortu zenuen Espainiako txapelketa irabaztean?

Hiru nesken kontra borrokatu nuen, eta hirurak irabazi egin nituen.

Noren kontra egin zenuen finala?

Ailem Lopezen kontra, Bilboko C21 gimnasiokoa, egin nuen.

Oso gogorra egin zaizu txapelketa hori prestatzea eta irabaztea?

Asko entrenatu behar izan nuen txapelketan parte hartzeko eta, noski, irabazteko. Gogorra izan zen, baina pena merezi du.

Nola sentitu zinen Espainiako txapelketa irabaztean?

Oso emozionatuta, eta negarrez hasi nintzen.

Beti borrokatzen duzu nesken kontra?

Kumitetan bai, beti borrokatzen da sexu berekoekin, baina berria da aurten katetan sexu desberdinekoekin ere egitea. Ez dut oraindik aukera izan mutilen kontra egiteko.

Noraino gustatuko litzaizuke heltzea karatean?

Gerriko beltza lortu arte jarraitzeko asmoa dut, eta ahal bada gehiago!



Zubi bat aurkitu dut Berlinen



**Hiri arrotza, hiri hotza.
Bertakoen irribarreak aste-
bururako gordetzen dituena.
Hala izan da lehen astean,
behintzat, niretzat.**

Baina, berehala, izotz horren zirrikituetatik Girasoles Haurreskolako argi-izpiak sartu dira, hezitzaile eta haurrek besoak zabaldu dizkigutenean. Harrera horrek ikasketa teorikotik praktikora pasatzeak sortutako zalantzak ('Gustora sentituko dira haurrak? Laguntzaile edo zama bezala ikusiko naute hezitzaileek? Praktikan ikasitakoa jartzeko gai izango naiz? Haur txikiekin komunikatzeko gai izango naiz?') uxatu ditu eta lankide, eta umek nigan konfidantza dutela sentitu dut hasieratik. Hori hiriaz ikusminez gozatzeko bultzada izan da eta alemana ikasteko gogoia ere areagotu zait.

Erasmus praktikak Alemanian egitea erabaki nuenean, lan aukera mordo eskaintzen dituen herrialdea izatea espero nuen eta, ahal nuen onen egokitzea, baina praktiketan hori baino askoz gehiago betetzen ari da, aurreko urteko aurkezpenetan Eskurtzeko ikasleen aurpegietako poztasuna sentitu baitut. Egia da badaudela egun zailagoak, adibidez, janzen eta eranzten hasi nintzenean, galduta sentitu nintzen; ez nekien zer zen zeinena eta denbora guztian galdetzen nengoela

iruditzen zitzaidan. Gainera, haurrek zapata eta arropekin jolastu nahi zuten eta ni haien jokoan sartzea eskatzen zidaten eskutik helduz. Egoera horietan tinko, baina lasai, argi azaltzen ahalegindu naiz parkera ateratzeko 'janzteko unea' dela (ia egunero atera gara, euria eta elurra egon direnean ere).

Berlineko guraso batzuegana hurbiltzea ere kostatzen zait, besteak beste, kultura desberdintasuna dela eta. Hala ere, badaude esker onez eta alaitasunez agurtzen zaituzten familia alemandarrak eta, bereziki, gaztelaniaz hitz egiten dutenak. Fardel aldaketa, ordea, nire harridurarako, lehenengo egunetik egitera animatu naiz, hain eroso sentitzen naiz kideekin eta txikitxoekin! Hori bai, lan pilo dago: bazkaria eta merienda zerbitzatzeko eta batzen, haurrak lo txokoan zaintzen, fardel aldaketa eta komunerako joan etorrien kontua ez galtzen, sortzen diren gatazkak bideratzen... Adi-adi behatzeko unetxoak bilatu behar ditut ikasle eta laguntzailearen arteko oreka egoteko eta Goi-mailako Haur Hezkuntzako Zikloan ikusitako adituen hitz jakintsuak praktikan jartzen saiatuz, batez ere, Emmi Piklerrenak. Uste baino zailagoa da hark haurraren jolaseko unean hezitzaileok mantendu beharreko zeharkako eskuhartzea errespetatzea eta, nahiz eta guztiok haurraren autonomiaren alde egon, batzuetan gure burua pausan jarri eta, ekin baino lehen, hausnartzea falta dela iruditu zait. Antzeko zerbait gertatzen da zaintza uneeekin; haurrek eta hezitzaileok haietaz gozatzeko, erlojuaren orratzek helduogon duten botereaz libratu behar dugu.

Itxuraz oztopo txiki diren erronka handi horiek dira, hain zuzen ere, egun bakoitzari bere distira eta berezitasuna ematen diotenak eta, une honetan, hiri honetan egoteko eman didaten aukera erabat aprobetxatu nahi dut, hezitzaile eta pertsona bezala Eskurtzen hasitako bidean aurrera egiteko.

Etxeko lanak eta kirolak



Asperdura eskolan
da gure nagusi
dena ikasi arren
nota beti gutxi
motxila handi batez
ia lepoa hautsi
nahiz ta eskolara joan
ta ondo erakutsi
etxe barruan behintzat
gu pakean utzi!

Futbolean zelaian
ta mendian gora,
pin-pona, snowborda
saskibaloï moda
korrika ibiltzen gara
denok bai gustora
baina etxeko-lanak
eta mila froga
kirola egiteko
ez dugu denbora

Doinua: Bizkaiko aberatsak

9-18 urte dituzu?

**HARRAPATU
ZURE ANKERA!**

www.harrapazank.eus

harrapa
zank ²⁰¹⁸

B

Bilbao



euskaltzateen
topagunea

